# Txostena 2012




EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org




# Aurkibidea




**1.** Aurkezpena 3

**2.** Nortzuk gara? 5

- Misioa 5
- Baloreak 6
- Barne antolaketa 6
- Koordinakunde eredu berri baterantz 7

**3.** Gure ekimenak 9

- Eragin politikoa 9
- Giza mobilizazioa eta kanpainak 11
- Generoa 13
- Komunikazioa 15
- Idazkaritza teknikoak 17

**4.** Koordinakundeko kideak 26

- Gobernu Batzordea 26
- Lan-taldeak 26
- Erakundeetan partaidetza 27
- Talde teknikoa 27
- GGKEak 28
- Lankideak 28

**5.** Kontu argiak 29




# 1. Aurkezpena



## Zailtasunak zailtasun, eraldatzen jarraitzen dugu

Nazioarteko lankidetzak aukera eman dio euskal gizarteari hurbilagotik ezagutzeko munduko garapen erronkak, beti ere euskal ekonomia-, kultura- eta gizarte-sarearen berezitasun eta gaitasunetatik abiatuta. Eta, aldi berean, elkarrizketa bat bultzatu du lankidetzaren bidezko laguntza jasotzen duten herrialde pobretuekin. Espiritu solidario hori, sentimendu eta jokabide horiek euskal gizartearen nortasunaren ezaugarri izan dira, eta espero dugu hala izaten jarraituko dutela.



Azken urteotan, Estatuko administrazioak eta autonomia erkidego askotako agintaritzek murrizketa handiak egin dituzte nazioarteko lankidetza politiketan, guztiz desagerrarazi dituztelarik zenbait kasutan. Halere, 2012an Lankidetzaren Euskal Kontseiluak –lankidetzarekin lotutako euskal eragileak ordezkatzen dituen organo instituzionala- Kalitatezko lankidetza deszentralizatuaren alde izeneko deklarazio instituzionala sinatu du. Aho-batez izenpetutako dokumentu horren arabera, krisia aukera paregabea da eraginkorrago eta gardenago izateko, defendatu egin behar dira azken 25 urteotan erakundeen, gizarte zibilaren eta hiritarren artean eraikitako lankidetzako politika publikoak eta aurrera jarraitu behar da garapenerako finantza baliabide "egonkor eta aurreikusgarriak" bideratzeko konpromisoarekin, "etorkizunean %0,7a lortzeari uko egin gabe".

Testuinguru honetan eta aurrekontu zailtasunak gorabehera, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Bilbo eta Donostiako (eta beste udalerri batzuetako) udalek nazioarteko lankidetzarekiko konpromisoari eutsi diote. Baina ez da hala izan Gasteizko Udalean eta Arabako Foru Aldundian.

## Koordinakunde eredu berri baterantz

Lankidetzaren erronka berriei egokitu nahian, erakunde kideok informazio, gogoeta eta eztabaida prozesu bat hasi genuen 2010ean, hiru helbururekin: sektorearen gaur egungo egoerari eta dituen premiei ongien erantzungo dien antolakuntza eredua definitzea; lankidetzan eta garapenerako hezkuntzan egiten ditugun esku-hartzeen eragina hobetzea; eta Koordinakundearen ikuspegia hitzartu eta bateratzea. Prozesu hori 2012ko martxoaren 31ko Batzar Nagusian amaitu zen, non Koordinakundearen egiturari eredu berri bat eman baitzitzaion eta lan-ildo eta helburu berriak finkatu baitziren. Akordio horiek guztiak urte honetan zehar gauzatu ditu Gobernu Batzordeak.

Koordinakunde barruan egin den eraldaketa lan horri esker, oinarri batzuk ezarri ditugu lankidetzaren eraginkortasun eta inpaktu handiagoa lortzeko eta konfiantza gehiago dugu gure erakundearen eragin gaitasunean, elkartasunak euskal gizartearen nortasun ikurra izaten jarrai dezan.




## Eraikitzen, lan egiten, sortzen jarraitzen dugu

Koordinakundean adostutako erabakiak kontzertazio espazio instituzionaletara eraman ditugu, eta espazio horietan parte hartze handia eduki dugu. Bestalde, aldizkako bilerak egin ditugu lankidetza politikak egiteko ardura duten eragileekin eta alderdi politikoekin, eta bilera horiek ugariagoak izan dira urriko hauteskunde autonomikoen testuinguruan. 2012ko lan instituzionalaren ardatz nagusia izan da aurrera jarraitzea Euskadiko lankidetza deszentralizatua definitu duen adostasunarekin.

Nazioarteko lankidetzak estaldura mediatiko handiagoa izan du Euskadin krisi garaian. Sektorearen agerraldiak komunikabide sozialetan indartu egin dira, nagusiki Araban, Gasteizko Udalak eta Foru Aldundiak politika sozialetan egin dituzten murrizketen karietara. Ondorioz, kalean ere presentzia handiagoa izan dute garapenerako GKEek (GGKE). Izan ere, murrizketa sozialen ondorioak salatzeko hainbat ekitaldi publiko deitu ditugu beste kolektibo batzuekin batera.

Bestalde, Euskal lankidetza publikoaren azterketa 2008-2010; lankidetza deszentralizatuari begirada bat ikerketa egin eta aurkeztu dugu. Era berean, Zero Pobrezia kanpainarekin jarraitu dugu, zeina duela hainbat urtetik antolatzen baita hiru probintzietan, pobrezia eta desberdintasuna sortzen dituzten arrazoiak salatzeko eta gizartea kontzientziatzeko. Hainbat gairi buruzko prestakuntza saioak eskaini dizkiegu erakunde kideei, adibidez, nola transbertsalizatu generoa beren ekintzetan. Koordinakundeko Genero Politika ere definitu eta onartu dugu.

2012an, Arabatik mundura Nazioarteko Lankidetza arabar Foroaren bi edizio antolatu ditugu Araban; Bizkaian Estatuko GGKEen koordinakunde autonomikoen X. topaketa egin dugu eta Gipuzkoan, berriz, Mundu zabala, errealitate anitz sentsibilizazio jardunaldiaren hamargarren edizioa.

GGKEen izatearen arrazoia inoiz baino biziago dago orain. Erronka bat dugu: globalizazio bat defendatzea, giza aniztasuna babestuko duena, talde eta gizarte minoritarioak zainduko dituena eta, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunari jarraiki, esparru lokal eta globalaren bizikidetza horizontala bermatuko duena.•

Ana María Arriola Palomares
Euskadiko Garapenerako GKEen
Koordinakundeko lehendakaria





# 2. Nortzuk gara?



## Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea

1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2012aren amaieran 81 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurraldeetan. Urte hauetako esperientziaren ondorioz, Koordinakundearen lehentasunezko helburu batzuk adostu ditugu guztion artean:

- Kide diren GGKEen arteko koordinazioa hobestea, garapenerako nazioarteko lankidetza areagotzeko, erakundeen arteko ekintza bateratuak gauzatuz.
- Sustatzen ari garen lankidetza ereduaren hausnarketarako espazio erkidea sortzea, Iparralde/Hegoaldean dauden harreman desberdinak aldatzeko.
- Euskal gizartea Hegoaldeko herrialdeen errealitatearekiko sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatu.
- Tolerantzia eta elkartasuna bultzatu herri eta kulturen artean.
- Jendaurrean azaldu GGKEek eginiko lana.

## Misioa

Koordinakundea garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek Jokabide Kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatu bat osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmari jarraituz. Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetza sustatzea, euskal erakunde publiko zein pribatuen artean eta Koordinakundeko kide diren erakundeen artean.
- Koordinakundeko kide diren erakundeen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.
- Gure inguruneko eraldaketa soziala bultzatzea, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundean topaketa, eztabaida eta gogoeta espazioak eskaintzen ditugu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen gara politikoki eta sozialki, aliantzak egiten ditugu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen gara. Horrekin batera, erakundeei laguntzen diegu beren lanean, dauzkaten gaitasunak indartzen ditugu, beren arteko aliantzak bideratzen ditugu eta kolektiboaren esku jartzen ditugu kide bakoitzak dauzkan baliabideak, eta alderantziz.








## Baloreak

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gaindituz eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Mundu osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea egin dugu Beste mundu bat posible da leloa. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna; garapenerako lankidetza ez da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobretuekin lan egiten da giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzeko, hezkuntza lortzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko eta ohartarazteko badirela hori guztia eragozten duten hainbat mekanismo. Koordinakundeak, halaber, kide diren erakundeen ekintzak zuzentzen dituzten baloreak islatzen ditu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia parte-hartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero ekitatea lantzeari.

## Barne antolaketa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen organo nagusia Batzorde Orokorra da. Urteko oinarrizko irizpide eta jarduera ildoak zehazteko batzen da. Bestalde, Batzorde Orokorrean hautatzen dira instantzietako ordezkari izango diren karguak.

Batzar Nagusia gutxienez urtean behin biltzen denez, Gobernu Batzarra da Koordinakundearen organo betearazlea. Koordinakundearen jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu, Batzar Nagusiak eta haren plan estrategikoak xedatutakoari jarraituz. Lurraldeko batzarrak, Koordinakundearen




ordezkaritza horretan elkartutako GGKEek osatzen dituztenak, lurralde ordezkaritzen gobernu organoak dira. Gainera, lurralde bakoitzean lantaldeak oinarri hartuta egiten da lan. Onginahi hutsez lan egiten duten hainbat GGKEtako kideek osatzen dituzte eta talde txikiak izaten dira. Gaur egun, arlo hauetan egiten dute lan:

- Eragin politikoa
- Giza mobilizazioa eta kanpainak
- Generoa
- Komunikazioa

Idazkaritza teknikoak, herrialde bakoitzeko bat, Gobernu Batzarrak eta Batzar Nagusiak haien esku uzten dituzten erabakiak gauzatzeko ardura duten organoa dira. Gainera, GGKEei eta herritarrei zerbitzuak eskeintzen dizkiete. Halaber, bada Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea, kide diren GGKEek kode honen segimendua bermatzen duena, kodea zabal eta ezagut dadin bultzatzen duena eta honen aplikazioaren inguruan aholkuak ematen dituena.

2001az geroztik, Espainiako GGKEen Koordinakundearen barruan gaude. 2009an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eman zion Ignacio Ellacuria saria, garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona izan zen hau.



## Koordinakunde eredu berri baterantz

Testuinguru aldakor honetako erronka berriei egokitze aldera, urte eta erdi inguruan Koordinakundeko erakunde kideak informazio, gogoeta eta eztabaida prozesu batean murgilduta egon dira, sektorearen egungo egoerari eta premiei ongien erantzungo dien antolakuntza eredua zehazteko; GGKEen ekintzek duten eragina hobetzen saiatzeko; eta euskal GGKEek Koordinakundeaz dituzten igurikapenak betetzeko. Prozesu horren emaitza Koordinakundearen 2012ko martxoko Batzar Nagusian aurkeztu da, lehentasunezko bi lan ildo finkatu direlarik:

- Eragin politikoa, salaketa eta giza mobilizazioa, genero ekitatea kontuan hartuta.
- Koordinakundeko erakunde kideen eraldaketa sozialerako gaitasuna indartzea.



Bestalde, lan ildoak errealitateari egokitzeko, bost helburu nagusi definitu ditugu:

- Eragina izatea lankidetza politiketan.
- Legeriaren betepena eta politiken koherentzia zaintzea.
- Kritikoki eta proposamen modura zabaltzea Ipar-Hegoko desberdintasunen eta gure gizarteko aberastasunaren banaketa desberdinaren kausak eta ondorioak.
- Aliantzak sustatzea mugimendu sozialekin, mobilizazioaren oinarri soziala zabaltzeko eta alternatiba pluralak eraikitzeko.
- Kide diren erakundeen gaitasunak hobetzea, beren helburuak koordinatuki, eraginkortasunez, efizienteki eta koherentziaz lor ditzaten.

Era berean, hainbat neurri hartu ditugu eraldaketa testuinguru berri honetan eraiki nahi dugun Koordinakunde ereduari buruz, besteak beste, kidetasunaren, aurrekontuen eta egituraren inguruan. Aldaketa nagusien artean aipatzekoak dira:

- Koordinakundeko Zuzendaritza ordezkatu eta Koordinazio orokorra eta Koordinazio administratiboa ezartzea.
- Giza mobilizazioa eta kanpainak eta Eragin politikoa zirenak Eragin sozial eta politikoa izeneko arlo bakar batean elkartzea.



- Ikerketa, prestakuntza eta generoa izeneko arlo berria sortzea.
- Funtzio anitzetako lanpostuak sortzea lurralde bakoitzean era askotako zereginak burutzeko.
- Gobernu Batzordeak bere gain hartzea Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordeak zituen funtzioak.
- Gobernu Batzordeko kide kopurua murriztea.

Erabaki horiek hartu ondoren Koordinakundearen birplanteamendu globala egin dugu, antolakuntza eskema osoa berrikusiz. Eginiko gogoetak gorpuztu egin dira eta, pixkanaka, 2012ko azken hilabeteetatik hasita, Koordinakundeak aurrera egin du eredu berrirantz. Hala ere, kontuan izanik geure gain hartutako konpromisoak eta lehendik onartuta zeuden plangintzak, barne eraldaketa prozesua baino lehenago hasiak ziren zenbait jarduera-ildo mantendu behar izan ditugu urtean zehar, behar bezala burutu zitezen.•





10 AL DÍA | COOPERACIÓN

Domingo 23.09.12 EL DIARIO VASCO

«Nos juntamos para mostrar la importancia de la solidaridad»

Las ONG de Desarrollo guipuzcoanas salieron a la calle para mostrar su trabajo en los países del sur y la importancia de la cooperación

MONTSE HIDALGO

Cinco objetivos



10 CIUDADANOS

La tijera gana el pulso a la solidaridad vitoriana

La ayuda en cooperación pasa del liderazgo en el País Vasco al último lugar por los recortes del Gobierno Maroto





## 3. Gure ekimenak




sociedad
álava

Maroto evidencia su soledad en el drástico recorte a la cooperación al desarrollo

PNV, PSE Y BILDU EXIGEN AL ALCALDE QUE DÉ MARCHA ATRÁS A SU 'TIJERETAZO' DEL 90%

1%

# Eragin politikoa

**2012an** harreman egonkorrak izan ditugu Euskadiko lankidetza politikak diseinatzeko ardura duten eragileekin eta baita ere erkidegoan ordezkaritza duten alderdi politiko nagusiekin eta beste erakunde batzuekin, hala nola Euskal Fondoarekin. Aldizkako bilerak egin ditugu Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziarekin eta ordezkaritza egonkorra izan dugu Lankidetzarako Euskal Kontseiluan. Bi espazio horietan aurkeztu ditugu erakunde honen araudiarekiko posizionamendu eta ekarpenak. Aipatzekoa da 2012-2015 Plan Zuzentzailea idazteko prozesuan parte hartu dugula eta Euskal Kontseiluarekin bat egin dugula, lankidetza deszentralizatua defendatzeko aitorpen instituzionala idazteko eta sinatzeko.

Lankidetza politika publikoen jarraipenari dagokionez, Euskal lankidetza publikoaren azterketa 2008-2010; lankidetza deszentralizatuari begirada bat izeneko analisia amaitzea eta aurkeztea izan da zeregin nagusietako bat. Erakunde publikoetako aurrekontuen bilakaera aztertu dugu krisi ekonomikoaren testuingurua kontuan hartuta eta alderdi politikoei lankidetzara bideratutako aurrekontu proposamen bat helarazi diegu 2013rako.

Lurraldeka, elkarrizketak egin ditugu nola lankidetzako udal eta foru arduradunekin hala alderdi politikoetakoekin, jarraipena egin diegu lankidetza politikei eta presentzia izan dugu udaletako lankidetza batzordeetan, hainbat ekintza burutu dugularik.

Araban, Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak garapenerako politikan egin dituzten murrizketa handiak salatu ditugu. Era berean, aipatzekoak dira alderdi politikoekin eta erakundeetako ordezkariekin eginiko bilerak, murrizketak salatzeko prentsaurrekoa, Gasteizko Udaletxean herriarentzako txandan eginiko



esku-hartzea eta Arabatik mundura Nazioarteko Lankidetza arabar Foroaren bi edizio antolatzeko eta testuinguru horretan eragin sozial eta politikorako estrategia bat diseinatzeko emandako laguntza.

Bizkaian hainbat ekarpen egin dizkiegu erakundeen oinarriei eta bereziki Bizkaiko Foru Aldundiko Plan Zuzentzaileari. Kontzentrazio bat antolatu dugu Bilboko Udalak 2013rako lankidetza partidan egindako murrizketa desproportzionatuaren aurka protesta egiteko eta dokumentu proposamen bat aurkeztu dugu lankidetza politika defendatuz, Udaletxeko Lankidetza Batzordeko kide gehienek onartu dutelarik. Bestalde, sakon aztertu ditugu Getxo eta



Barakaldoko udaletako lankidetza politikak eta lehenengoan testu bat aurkeztu dugu lankidetza taldean egin dugun balorazioarekin.

Gipuzkoan azpimarratzekoa da Donostiako Udalaren Plan Zuzentzailea egiteko prozesuan parte hartu dugula hainbat ekarpen eginez. Era berean, ekarpenak egin dizkiegu Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarri berriei eta Donostiako Udalaren Pobreziaren aurkako Itunaren sinadurari jarraipena eman diogu.

Dokumentu Markoari buruz, hots, Koordinakundeak eragin politikoko lanarekin lotutako gaien inguruan dituen posizionamenduak eta oinarrizko printzipioak jasotzen dituen agiriari buruz, esan behar da Gardentasun eta kontu emate proposamen bat euskal lankidetzarako izeneko kapitulua egin dugula eta hainbat lankidetza kontseilutan aurkeztu dugula.

Erkidegoko hauteskunde autonomikoen harira, garapenerako lankidetzari buruzko proposamen bat igorri diegu alderdi politikoetako batzorde exekutiboei eta hainbat bilera egin ditugu eurekin. Bestalde, Alboan erakundeak antolatutako *Tengo una pregunta para usted* ekimenean parte hartu dugu eta alderdi politikoen mitin garrantzitsuenetan informazio orriak banatu ditugu, Koordinakundearen iritziz politika solidario bat zer den azalduz.•



2012ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK

**Hautagaitza solidarioena bozkatuko dut**

**ELKARTASUNA BOZKATZEN DUZU**

1. Zure alderdiak Lankidetza Legea betetzen badu
2. Zure alderdiak baliabide gutxien duten pertsonak lehenesten baditu
3. Zure alderdiak ondoko herrietan ere pentsatzen badu
4. Zure alderdia solidarioa bada garai txarretan eta onetan
5. Zure alderdiak aberats eta pobreen arteko desberdintasunak murrizten baditu
6. Zure alderdia solidarioa bada hemengo eta beste herrialde batzuetako jendearekin
7. Zure alderdiak justizia soziala defendatzen badu
8. Zure alderdiak eskubide sozial, zibil, politiko, ekonomiko eta kulturalak errespetatzen baditu
9. Zure alderdiak aldaketa sozialago eta ekologikoki iraunkorrago batean sinesten badu.
10. Zure alderdiak pertsonak lehenesten baditu bankuen gainetik
11. Zure alderdiak barne demokrazia gehiagoren aldeko apostua egiten badu
12. Zure alderdiak giza eskubideen inguruko hauteskunde promesak betetzen baditu

www.ongdeuskadi.org







gure ekimenak



# Giza mobilizazioa eta kanpainak

**Mobilizazio sozialen eta kanpainen lantaldetik,** urtean zehar ahalegina egin dugu gure inguruko eraldaketa soziala bultzatzeko, elkartasunezko kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia eragiten dituzten egiturak aldaraziz eta garapen ereduari buruzko eztabaida eta parte-hartzea bideratuz.

Guretzat funtsezkoak diren aliantzetan oinarriturik, urtean zehar hainbat gogoeta sustatu ditugu beste eragile batzuekiko harremanen eta aldaketa soziala eragiteko mugimenduen inguruan. Hala, hainbat sare eta plataformak sustatutako ekimenetan parte hartu dugu: Zero Pobrezia plataformak, REAS, EAPN, Eskubide Sozialen aldeko Gasteizko Plataforma, 15M, Ekologistak Martxan, EGK, Harresiak Apurtuz...

Zentzu horretan, aipatzekoak dira Mundu zabala, errealitate anitz sentsibilizazio jardunaldiaren hamargarren edizioan mamitutako aliantzak, lortu dugulako, Koordinakundeaz gain, beste eragile eta erakunde batzuk inplikatzea. Aurten berriro parte hartu dugu Donostiako Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako XV. Martxan, beste kolektibo eta eragile sozial batzuekin batera.

Helburutzat hartu dugu baita ere ahaleginak batzea eta Koordinakundeko erakunde kide guztiak eta beren aldarrikapenak indartzea, GGKEek egiten duten lana babestuz eta aktiboki parte hartuz kideetako bakoitzak bultzatzen dituen kanpaina eta ekintzetan: harrera zentroetatik egotzitako gazteak; Juega Limpio Kanpaina; Hezkuntzaren Aldeko Munduko Kanpaina; Bidezko Merkataritza; Giza Eskubideen Zinema Jaialdia; Munduko Arrozak; Marea Violeta; desazkundea jardunaldiak. Era berean, Palestinarekiko elkartasun GGKEek martxan daukaten Boikot, Desinbertsio eta Zigor (BDS) kanpainaren informazioak eta ekintzak hedatu ditugu, Koordinakundeak aktiboki parte hartzen baitu kanpaina horretan beste eragile eta mugimendu sozial batzuekin batera (Komite Internazionalistak, Askapena, ESK, STEE-EILAS sindikatuak...).









gure ekimenak





Beste kolektibo eta erakunde batzuekin batera (Mugarik Gabe, Ekologistak Martxan, Desazkundea, REAS, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Bizilur, ESK, Bakea eta Duintasuna), Desazkundea eta Bizitze onak II. Topaketak antolatu ditugu Bilbon. Jardunaldi horietan, izenburuan aipatutako kontzeptuak sakontzeaz gain, desazkundearekin lotutako esperientziak ezagutu eta aztertu ditugu hizlariekin eta 200 parte-hartzaileekin batera.

Era berean, Koordinakundeak zuzendutako giza mobilizazioko ekintzak antolatu ditugu; erakundeak aktiboki inplikatu dira eta beste eragile sozial batzuek ere bat egin dute. Horrela, Zero Pobrezia kanpaina babesten jarraitu dugu: sakon landu ditugu eduki eta ikuspegi berriak (desazkunde eta bizitze ona) Koordinakundeko barne eztabaida eta hausnarketarako elementu gisa, eduki berriak, ekintzak edota beste kolektibo eta eragile sozial batzuekiko harremanak eta sareak sortzeko. Beste batzuetan bezala, aurten ere sentsibilizazio eta salaketa ekintza ugari egin ditugu kalean eta ez ditugu ahaztu prestakuntza eta hausnarketa; helburu horiekin antolatu ditugu hitzaldiak, zine-forumak, material banaketak, tailerrak, topaketak...

Halaber, beste kolektibo eta mugimendu batzuekin batera, apustu sendoa egin dugu Araban eginiko murrizketak gogor salatzeko, eta ez bakarrik lankidetza arlokoak, baita sozialak ere.•













# Generoa

**2012an** Koordinakundeko Genero Politika onartu dugu Batzar Nagusian; horixe izan da genero ekitatearekin loturik egin dugun jarduerarik garrantzitsuena. Hau da dokumentuaren oinarrizko egitura:




- Erreferentzia-esparru politiko-ideologikoa.
- Genero ekitatearen ibilbidea Euskadiko GGKEen Koordinakundean.
- Koordinakundearen posizionamendua genero ekitate arloko gaietan.
- Helburu orokorra eta interbentzio-ildoak.
- Ekintza zehatzak.
- Jarraipena eta ebaluaketa.

Genero Politika hau onartzea mugarri bat izan da Koordinakundean. Praktikan, politikaren helburu nagusia erakunde barruan transbertsal bihurtzea suposatzen du: Koordinakundearen eguneroko lanean nahiz barne funtzionamenduan genero ekitatea bermatzea, gainerako GGKEentzat eredu bihurtuz genero ekitatearekiko konpromisoan. Hauek dira politikaren esku-hartze ildoak, denboran irauteko bokazioa duten ekintza espezifikoak biltzen dituztenak: lankidetza politikak, prestakuntza, komunikazioa, aliantzak, antolakuntza-egitura eta antolakuntza-kultura.

Bestalde, Koordinakundeko Genero lantaldeak jarraitu du dokumentu instituzionalei ekarpenak egiten, urtean zehar onartu edo tramitatu diren dokumentu guztiei genero analisia eginez. Esaterako, Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren Plan Zuzentzaileak eta hiru foru aldundietako Plan Zuzentzaile bateratua ebaluatu ditu.

Zentzu horretan, aipatzekoa da dokumentu bat egin dugula, non Genero lantaldeak Euskadiko erakunde publikoek GGKEen eskura jartzen dituzten genero ekitatean aurrera pausuak emateko tresnen inguruan azterketa egin dugun. Bertan iradokizunak ere egin ditugu. Dokumentu horretan jasota daude 2011n Bilbon Genero lantaldeak antolaturiko




gure ekimenak










Genero ikuspegidun nazioarteko lankidetza politika publikoak krisi garaian jardunaldietan gai honi buruz adostutako guztiak.

Genero lantaldeak eta beste GGKE nahiz mugimendu sozial batzuk zenbait espaziotan parte hartzen jarraitu dugu, estrategikotzat jotzen ditugulako, besteak beste, martxoak 8ko (Emakumearen Nazioarteko Eguna) eta azaroaren 25eko (Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna) Bizkaiko koordinakunde feministetan. Estatuko eta autonomietako Genero taldean parte hartzen jarraitu dugu. Era berean, Elkarrizketa Kontsonanteak topaketaren 5. edizioan izan gara, Madrilen. Truke eta gogoetarako espazio honek Espainiako lankidetzaren laguntza guztiak eta Latinoamerika eta Karibeko sare eta erakunde feministak koordinatzeko, artikulatzeko eta eraginkorrago egiteko ekintzak bultzatzen ditu.

Prestakuntzari dagokionez, Genero arloko arduradunak modulu bat eman du Gipuzkoako hainbat erakundek garapenerako lankidetzari buruz antolatu duten ikastaro batean, eta hitzaldi bat eman du Hegoa erakundeak Bilbon antolatutako Garapenerako lankidetza eta gorputz politikak; gogoeta feministak jardunaldietan. Gainera, hainbat prestakuntza antolatu ditugu GGKE kideek generoa transbertsal egin dezaten beren ekintzetan.

Azkenik, gainerako arloekin koordinatutako jarduerei dagokienez, bereziki garrantzitsua izan den bat azpimarratu behar da. Genero arloak Giza mobilizazio eta kanpainak eta Komunikazio arloekin batera parte hartu dugu hainbat GGKEk osatutako talde eragile batean, zeina sentsibilizazio eta komunikazio kanpaina bat prestatzen ari baita gizarteari ezagutzera emateko zeintzuk diren pobrezia eta desberdintasuna sortzen dituzten arrazoiak. Lan saio bat ere egin dugu Bilbon GGKE kideekin, kanpainan zein hedapen tresna erabiliko ditugun eztabaidatzeko. Gainera, 2013an martxan jarriko den kanpaina honetarako lehen bideoak, triptikoak eta materialak egin ditugu.•



# Komunikazioa

## Urtean zehar hainbat ekintza egin ditugu askotariko bidegabekeriak salatzeko eta pobrezia eta Iparra-Hegoa arteko desberdintasunak sortzen dituzten arrazoiak ezagutzera eman ditugu, komunikaziotik abiatuta, ere eraldaketa soziala sustatzeko.

Besteak beste, komunikabideak erabili ditugu Koordinakundeko taldeek eta parte hartzen dugun bestelako plataformek antolatutako jardueren berri emateko. Aipatzekoak dira hainbat ekitaldiren karietara argitaratutako informazio eta elkarrizketak: Pobreziaren aurkako Astea, Donostiako Mundu zabala, errealitate anitz jardunaldiak, Bilboko Desazkundea eta Bizitze Onak II. Topaketak jardunaldiak, Hezkuntzaren Aldeko Munduko Kanpaina, Laudio eta Amurrioko azoka solidarioak... Azpimarratzekoak dira baita ere Mewando sareak sustatutako laguntza jarduerak (Palestinari buruzko Munduko Foro Soziala, Nakba Eguna, e.a.) eta martxoaren 8an nahiz azaroaren 25ean antolatutako mobilizazioak. Gainerako lantaldeekin batera, bi iritzi artikulu argitaratu ditugu hedabideetan Estatuko koordinakunde autonomikoen X. topaketaren eta Garapenerako lankidetzaren krisia: Euskadiko egoera jardunaldien karietara (azken hori Hegoa erakundearekin batera).

Azpimarratzekoa da Araban Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak lankidetza politiketan eginda dituzten murrizketen ondoren garatu den etengabeko komunikazio lana. Hala, aipa litezke pertsona ezagunen babesarekin (Bernando Atxaga eta José Ángel Cuerda) emandako prentsaurrekoa, Udalaren aurrean eginiko kale ekintza, Udaleko herritarren txandan parte hartu izanagatik idatzitako prentsa oharrak eta posizionamenduak, Arabatik mundura Nazioarteko Lankidetza arabar Foroaren bi edizioak... Era berean, hedabideetan zabaldu dugu Bilboko Udalak 2013rako iragarri dituen lankidetza arloko murrizketak salatzeko kale ekintza.

Esparru autonomikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundietan eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko udaletan 2012an lankidetzara bideratu dituzten aurrekontuen balorazio publikoa egin dugu, baita Lankidetzaren Euskal Kontseiluak lankidetza defendatzeko aitorpen instituzional historiko bat egin ondoren ere. Hauteskunde autonomikoen markoan, EAEko alderdi politiko nagusiek hauteskunde programetan beren gain hartutako konpromisoak aztertu ditugu. Azkenik,


CIUDADANOS

El alcalde mantiene el recorte de 3 millones en cooperación al desarrollo

La oposición buscará fórmulas para «obligarle» a dar marcha atrás y aportar el 1% de los ingresos a proyecto solidarios

El portavoz de la Coordinadora de ONGs de Euskadi, Alberto Cerejo, interviene en el pleno.







Donostian prentsaurreko batean aurkeztu dugu euskal lankidetza publikoak 2008tik 2010era bitartean izandako bilakaera aztertzen duen azterlana. Ekintza horiei denei esker presentzia publiko nabarmena lortu dugu.

Horrez gain, erakundeei komunikabideetara iristeko bidea errazteko, eguneratu egin ditugu elkartasun eta lankidetza gaiekin lotutako albisteak lantzeko interesa duten Euskadiko kazetarien datu baseak. Astero zuzeneko konexioak egin ditugu Onda vasca irratian GGKEen jarduera eta ekimenen agenda solidarioa azaltzeko. Koordinakundeko argitalpen garrantzitsuenak editatzen lagundu dugu, besteak beste, hainbat gai sozial landu dituzten Ahotsa aldizkariaren bi aleak, 1.200dik gora hartzaileren artean banatu direnak, hala nola ikastetxeetan, unibertsitateetan, komunikabideetan, gazte informazio guneetan, liburutegietan, dokumentazio zentroetan, erakunde publikoetan...

Weba etengabe egon da eguneratuta, baita zenbait blog ere non presentzia daukagun. Astean behin buletin digital bat igorri dugu informazio interesgarriekin eta sare sozialen aldeko apustuari eutsi diogu gizartearekin komunikatzeko eta elkarreragiteko. Azkenik, UPV/EHUk Leioan duen Komunikazio Fakultatean Komunikazioa eta Garapenerako Lankidetza mintegia antolatu da eta horretan modulu bat eskaini dugu Hegoaldeari dagokionez Irudi eta Mezuen Kodea komunikazioan nola aplikatu behar den erakusteko.•



Igandea

berria

06 Historia Euskal Herria mapetan
08 Elkarrizketa Carmen Urruela
15 Txinako ekonomia Xi Jinpingen etxeko lanak

Garapenerako lankidetza
Estutasunean lanean



# Garapenerako lankidetza krisian al dago?

Ana Maria eta Luis Guridi

Euskadiko garapenerako GKEen Koordinakundeko lehendakaria eta Hegoa Institutuko zuzendaria (UPV/EHU)

Dagoeneko 25 urte pasatu dira euskal erakunde publikoak gizarteko eskaeran oinarri izan zuen lankidetza jardueretan murgildu zirenetik. Gure lana bideratzeko aukera ezin hobe batean gaude, egungo behar eta erronkekin bat datozen oinarri berri eta irmoak eraikiz. Ez dezagun bidean gal orain arte euskal gizartearen nortasunaren oinarri izan den elkartasuna





# Idazkaritza teknikoak

**GGKE kideen lana** indartzea eta beren helburuak lortzeko laguntza ematea izan da 2012an idazkaritza teknikoek izan duten zeregin nagusia.

Etengabeko informazio eta aholkularitza zerbitzua eskaini dugu hainbat gairi buruz: GGKEetan boluntario izateari eta Hegoaldeko herrialdeak bisitatzeko aukerei buruz pertsona partikularren kasuan; lankidetza esparruari, deialdiei, diru-laguntzei, lan eskaintzei, prestakuntzari eta material informatiko edo bibliografikoaren maileguei buruz erakunde kideen kasuan... Koordinakundean kudeaketa lana egin dugu eta lan poltsa ere kudeatu dugu. Materialak eta argitalpenak banatu ditugu, eta, besteak beste, emaitzak bideratu eta lurralde bakoitzeko lantaldeak koordinatu ditugu.

Urtean zehar erakundeek aktiboki parte hartu dute Koordinakundean. Araban 17 erakundek hartu dute parte Koordinakundeko espazioren batean (lantaldeak, lurraldeko batzarrak...). Bizkaian 35 izan dira eta Gipuzkoan, berriz, 28.

Lurraldeetako batzarretarako deialdia egitea izan da idazkaritza teknikoen beste eginkizunetako bat, erakundeen lan koordinatua hobetzea helburu izanik. Araban 13 lurralde batzar egin dira eta Gipuzkoan 9, bi kasuetan hilean behin. Bizkaian, berriz, 5 topaketa egin dira. Era berean, 2012an bi batzar nagusi egin ditugu: lehena, ezohikoa, otsailean izan zen Bilbon eta bigarrena martxoan Donostian.

Aipatzekoa da Koordinakundeak presentzia izan duela Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak bultzatutako eztabaida saioetan eta parte hartu duela Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzaileak Kolonbian Programan. Horiez gain, aipamen berezia merezi dute beste hainbat ekintzak ere, inplikazio handiz parte hartu dugulako, adibidez, Hegoarekin batera Donostian antolatutako Garapenerako lankidetzaren krisia: Euskadiko egoera jardunaldietan. Era berean, EAEko Udalekin eta beste GGKE batzuekin batera, Bruselara joan gara Euskadiko Europar Batasunerako Ordezkaritzak garapenerako lankidetzari eta lankidetza deszentralizatuari buruz antolatu zuen jardunaldi informatibora, geroago Gasteizen egin zena Koordinakundearen parte-hartzearekin.

Prestakuntzaren atalean aipatzekoa da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde kideen eskaerak






gure ekimenak



eta prestakuntza premiak jaso eta sistematizatu ditugula. Idazkaritza teknikoetatik koordinatu ditugu eskaera guztiak eta hainbat prestakuntza-jarduera jarri ditugu martxan Koordinakundeko lan arloekin batera: Sare sozialak garapenerako GKEetan nola erabili (Gasteiz eta Donostia); Marketin soziala GGKEentzat (Bilbo); Sorkuntza kolektiboko ikastaroa; talde lanean oinarritutako prozesu partehartzailea (Bilbo –2013ko urtarrilean burutua-); Garapenerako lankidetza proiektuetan genero ikuspuntua sartzearen ikaskuntzak eskuratzeko saio praktikoa (Bilbo); Genero ekitatearen ikuspegia garapenerako lankidetza eta hezkuntza proiektuaren zikloan (Donostia); GGKE batek eragin politikoko estrategia bat diseinatzeko gakoak (Gasteiz eta Bilbo); eta Aplikatu daiteke desazkundea lankidetzan? (Donostia eta Gasteiz).

Aurten ere idazkaritza teknikoetatik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hegoaldearekin elkarlanan aritu nahi duzu?, nola parte hartu txostena eguneratu dugu. Garapenerako lankidetzarekiko interesa dutenei zuzendutako txosten bat da eta Koordinakundearen webean ere eskuratu daiteke. Txosten horretan aurki daitezke egoitzan edo herrialde pobretuetan boluntario lanean jarduteko dauden aukerak edota eskura daitekeen prestakuntza-eskaintza eta baita ere arlo honetara hurbildu nahi duten edo profesionalki sartu nahi luketenentzako bekak, praktikak eta programak.

Aipatzekoa da halaber Garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizazioarako baliabideak: baloreetan trebatzeko aukerak Euskadin katalogoa editatzeko informazio bilketan eta sistematizazioan egin den lana. CD honek erakunde kideentzako jarduerak eta garapenerako hezkuntzarako materialak jasotzen ditu eta Koordinakundearen webean ere aurki daiteke. Horrez gain, GGKEei, liburutegiei, ikastetxeei nahiz erakunde publikoei igorri zaie.

Bestalde, bilera informatiboak egin ditugu Koordinakundeari eta kide diren GGKEei lagundu nahi dieten edota Koordinakundean sartu nahi duten erakundeekin: besteak beste, Acción contra el Hambre, Forestales Sin Fronteras eta Remmso -Sahara occidental- Araban, Egoaizia, Baltistan Fundazioa, Garabide, Mundu Bakean, Farmamundi eta Amassunu Bizkaian eta AFGHAIR elkartea Gipuzkoan.










Gainera, idazkaritza teknikoetan partikular, elkarte, erakunde, kolektibo eta eskoletatik iritsi zaizkigun eskaera eta kontsultei erantzun diegu. 2012an Arabako ordezkaritzan 671 eskaera erantzun ditugu, Bizkaian 1.617 eta Gipuzkoan 917. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea eta jarraian datoz telefonoa eta bisita pertsonalak:




Koordinakundeko kide diren GGKEak dira informazioa lortzeko Koordinakundera gehien jotzen dutenak. Atzetik dituzte pertsona partikularrak eta kanpoko erakundeak edo kolektiboak, grafiko honetan ikus daitekeen bezala.




Informazio eskatzaileak sexuka bereiziz gero, ondoriozta dezakegu kontsulta gehienak emakumeek eginak direla, jarraian ageri den bezala:





Koordinakundea lankidetzaren esparruko erreferente bezala ikusten duten pertsonek eskaintzen diren zerbitzuei buruzko informazioa eskatu dute gehienbat. Ondoren, lankidetzaren esparruko gai espezifikoei buruzko aholkularitza eskatzen da gehien eta hirugarren tokian Kordinakundeko kide ez diren kolektiboei buruzko informazioa, grafiko honetan egiaztatu daitekeen bezala:



- Zerbitzuak (dohaintzak, lan poltsa, baliabideen mailegua...): %40
- Aholkularitza eta informazioa (kontaktuak, diru-laguntzen deialdiak, formakuntza, lankidetzak, tramite administratiboak...): %31
- Kanpoko erakunde edo kolektiboei buruzko informazioa: %10
- Boluntariotza eta esperientziak Hegoaldean: %10
- Koordinakundeari eta kide diren GGKEei buruzko informazioa: %9

Bestalde, Espainiako GGKEen Koordinakundeko kide garen aldetik, etengabe egon gara harremanetan elkarte horrekin eta lankidetza deszentralizatuko batzordeko kide izan gara bertako Gobernu Batzordean. Gainera, Koordinakundeak euskararen erabilera bultzatu nahi izan du, eta horregatik, Gipuzkoako eta Arabako ordezkaritzek Guk zerbitzua euskaraz eta Euskararen bidean mailei dagozkien Bai Euskarari ziurtagiriak lortu dituzte hurrenez hurren.







gure ekimenak



## Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

**Araban** taldeei lagundu diegu Gasteizko Udalak ia lankidetza politika guztiak desagerrarazi dituela eta Arabako Foru Aldundiak murrizketa handiak aplikatu dituela salatzeko ekintzetan. Besteak beste aipatzekoak dira Arabatik mundura Nazioarteko Lankidetza arabar Foroaren bi edizioak antolatzeko eginiko lana, zeinak helburutzat izan baitu murrizketa horiek salatzea eta krisia gorabehera balore solidarioekin konprometitutako gizartea lortzea. Lehen ekitaldia ekainean izan zen, non Arabak lankidetzan egindako murrizketak salatu baitziren. Bigarrena urrian izan zen, Pobreziaren aurkako Astean. Arcadi Oliveres ekonomialari eta aktibista sozialak parte hartu zuen, murrizketen eragina jasan duten tokiko hainbat erakunderekin batera. Azpimarratzekoa da bigarren foroa *streaming* bidez erretransmititu zela jarraipena hedatzeko eta aukera eman zela sare sozialetan aipamenak egiteko.



Gogora dezagun halaber Zero Pobrezia kanpainaren markoan eta beste kolektibo batzuekiko harremanetan (esaterako, Desazkundea, Eskubide Sozialen aldeko Gasteizko Plataforma...) eginiko koordinazio lana. Bestalde bi hitzaldi informatibo eskaini ditugu Hegoaldera bidaiatzeko aukerei eta GGKEetan boluntario gisa lan egiteko aukerei buruz, horietako bat Mejora Fundazioak eskatuta. Aurten ere espazioak utzi dizkiegu GGKE kideei beren materialak biltegiratu ditzaten Gasteizko Udalak utzi digun lokal batean eta 20 aldiz mailegatu dizkiegu materialak erakundeei. Azpimarragarria da Lanbide-tik igorritako hainbat kontsulta izan ditugula, nagusiki boluntario lanak egiteko interesa zuten etorkinenak. Gasteizko Parte-hartzearen eta Elkargintzaren Behatokian parte hartzen ere hasi gara. Azkenik, aipatzekoa da egoitza Simone de Beavoir Elkarteen Etxean kokatuta dagoela eta beraz erakunde ugarik partekatzen duten espazio batean parte hartu dugula. Aurten ere aukera eman dugu Elkarteen Etxe horretako erabilpen anitzeko aretoa erabiltzeko.



Vitoria se juega el aura solidaria

Las cuentas de cristal de Intermón Oxfam







**Bizkaiko,** idazkaritza teknikotik besteak beste UPV/EHUrekin lan egin dugu eta baita ere Bizkaiko hainbat herritako gazteei arreta emateko eremu desberdinekin, eta hala, harremanetan jarri ditugu GGKEekin, ikastaroetarako materiala eskaini diegu eta hitzaldiak edo erakusketak antolatu ditugu. Dokumentazio zentroan dauzkagun materialak katalogatzen jarraitu dugu: liburuak, dokumentuak, ikus-entzunezkoak, monografikoak, memoriak, txostenak, aldizkako argitalpenak, garapenerako hezkuntzako materialak... Funts dokumental hori GGKEen nahiz publiko orokorraren eskura dago eta gaur egun lankidetzaren esparruan sailkatutako 850 material inguru dauzka gordeta. Era berean, nagusiki Bizkaian –beste lurraldeen laguntzarekin– Estatuko GGKEen koordinakunde autonomikoen X. topaketa antolatu dugu. Bilbon garapenerako GKE autonomikoen 17 koordinakundetako 50 ordezkari baino gehiago elkartu dira. Urteroko hitzordu horretan Estatuko lankidetza esparruan ematen ari diren murrizketak salatu ditugu eta halaber ahalegina egin dugu GGKE autonomikoen koordinakundeek garatzen duten lana elkarreragileagoa, kalitate handiagokoa eta eraginkorragoa izan dadin. Gainera, Hegoaldeari dagokionez Irudi eta Mezuen Kodearen inguruko hitzaldi bat kudeatu dugu Muskizko Somorrostro prestakuntza zentroan.









**Gipuzkoan** etengabe egon gara harremanetan gazteentzako informazio zerbitzuekin eta Donostiako Udaleko Gazteria Sailarekin, zeintzuek informazio baliotsua eman baitigute boluntarioen txostena zabaltzeko, eta hedapenarekin laguntzeko prest agertu dira gainera. Era berean, harremanetan egon gara Gipuzkoako hiritarrei arreta emateko beste bulego eta zerbitzu batzuekin ere, esaterako Gizalderekin edo Emakumeen Etxearekin. Aktiboki lan egin dugu Koordinakundeak urtero Donostian egiten duen Mundu zabala, errealitate anitz sentsibilizazio jarduera antolatzeko. GGKE kideekin batera, kanpoko beste kolektibo batzuek ere parte hartu dute jardunaldietan, besteak beste SOS Arrazakeriak, Zero Pobrezia Plataformak, Bidezko Merkataritzako Partzuergoak eta FIARE erakundeak. Izaera politikoagoa eman nahi izan diogu jada ibilbide luzea duen ekitaldi honen hamargarren urteurrenari eta aldarrikatzeko erabili dugu. Hala, EAEko hauteskunde autonomikoen markoan, mahai-inguru bat antolatu dugu alderdi politikoekin, publikoki azaldu zezaten babesa emango dieten, edo ez, lankidetza politikei. Bestalde, Gipuzkoako Idazkaritza teknikoak mantendu egin du GGKE kideei material propioak mailegatzeko zerbitzua.













Amaitzeko, nabarmentzekoa da Gipuzkoan eta Araban lan handia egin dugula, elkar hobeto ezagutzeko eta GGKEen arteko lankidetza sustatzeko eskualde nahiz kuadriletan gauzatzen diren jardueretan. Horrela bada, GGKEen presentzia indartzeko lan espezifikoa egin dugu bi lurraldeetan, hiriburuetan zentralizatu gabe. Besteak beste, lankidetzaren esparruan diharduten erakundeekiko harremanak sortu ditugu, Hegoaldeko errealitateei buruzko sentsibilizazio ekintzak egin ditugu eta jarduerak koordinatu ditugu. Aipatzekoak dira ondokoak:

- Araban, sarean lan egiteko dokumentua eguneratu eta zabaldu dugu, zeinak informazio anitza jasotzen duten hainbat atal baitauzka: Arabako koadriletako kontaktu instituzional garrantzitsuenen datuak, sentsibilizazio jarduerak garatzeko espazioak eta horietako eragileak, lurraldeko GGKEek egiten duten lana eta jardueren berri emateko hedabideak, besteak beste. Aurten ere probintziako elkartasun azoka garrantzitsuenetan parte hartu dugu; maiatzean Amurrion Zero Pobrezia kanpainarekin eta urrian Laudion Pobreziaren aurkako Astearen barruan. Azken horretan, antolakuntzan parte hartzeaz gain, tailerrak egin ditugu ikastetxeetan. Era berean, kanpaina hori probintziako hainbat komunikabidetan hedatu dugu elkarrizketen edo albisteen bidez. Azkenik, bitartekaritza lanak egin ditugu GGKEen eta beste erakunde publiko batzuen artean, esaterako, Aramaioko Kultura arteko lehen Topaketan edo Burgeluko Elkartasun Astean. Erakunde publikoek lankidetzari buruz egin dizkiguten kontsultak edo informazio eskaerak ere erantzun eta bideratu ditugu.







- Gipuzkoan nabarmentzekoa da probintziako GGKEekin koordinatuta lan egin dugula jarduerak lurralde osoan bultzatzeko. Etengabe lan egin dugu kanpora begira, Zero Pobrezia plataformen bitartez kaleko jardueretan edo sentsibilizazio ekintzetan parte hartuz, baina aldi berean barne prestakuntzako prozesu interesgarriak eta eztabaidarako espazioak jarri ditugu martxan. GGKEen arteko koordinazioa sustatzeari dagokionez, jarduerarik aipagarrienetako bat langile teknikoekin eta Garapenerako hezkuntza eta Sentsibilizazio arloko arduradunekin egindako topaketa izan da; Donostian antolatu genuen, agendak partekatu eta koordinatzeko asmoz eta aldi berean erronkak elkarrekin konpontzen saiatzeko. Bestalde, eragin politikoko lantaldeari lagundu diogu bere ekintzetan eta eguneroko zereginetan.

Azpimarratzekoa da Zero Pobrezia kanpainak bost plataforma dauzkala martxan (Eibar, Debagoiena, Irun, Donostia eta Zarauzko elkartasun taldea). 56 erakunde inguru lanean ari dira helburu berbera lortzeko. Era berean, Zero Pobrezia kanpainaren materiala banatu dugu Gipuzkoa osoan eta horretarako Giza mobilizazio eta kanpaina taldearen laguntza izan dugu. Nabarmendu nahi dugu baita ere lan handia egin dela Donostiako Zero Pobrezia Plataforman eginiko formakuntza ikastaroak prestatzeko, esaterako, *La anticooperación: ¿es posible la aplicación del decrecimiento en la cooperación?* tailerra.•






# 4. Koordinakundeko kideak*

## Gobernu Batzordea

**Lehendakaritza** Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional. **Diruzaintza** Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Arabako ordezkaia** Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI). **Bizkaiko ordezkaria** Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. **Gipuzkoako ordezkaria** Iñaki Orube, Mugen Gainetik. **Batzordekidea** Fernando Vaquerizo, mundubat. **Batzordekidea** Eduardo García, medicusmundi álava/araba.

## Lan-taldeak

### Euskadi

#### Eragin politikoa

Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Amaia Iguarán, Ayuda Mas. José Ignacio Eguizabal eta Alicia Alemán, ALBOAN. Silvia Felipe, mundubat. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Mónica Hernando, Unesco Etxea. Eva Silván, Save the Children. Txema Cámara, Baltistán Fundazioa. Gonzalo Fernández, Hegoa. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia.

### Araba

#### Eragin politikoa

Luis Royero, Manuel Iradier Elkarte Afrikanista. Itziar Marquínez eta Miryam Berganza, medicusmundi álava/araba. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Ainhoa Oceja, Save the Children.

#### Giza mobilizazioa eta kanpainak

Ananda Abaigar, Adsis Fundazioa. Kepa Torrijos, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Ayem Oskoz, mundubat. Idoia Landaluce, SEADen Lagunen Elkartea Araba. Francisco Izquierdo, Elizbarrutietako Misioak. Beatriz Asenjo, Serso San Viator de Euskalherria/Tierra de Hombres-Gizakien Lurra/Save the Children. Lut Vansant, SETEM Hego Haizea. Olga Serrano, Gizakien Lurra.

Ikusirik 2012an Arabako lurraldean eman diren aurrekontu murrizketak, lantalde espezifiko berri bat sortu da gaia era koordinatu eta transbertsalagoan lantzeko. Pertsona hauek osatu dute lantalde hau:

#### Eragin soziala eta politikoko estrategia

Ayem Oskoz, mundubat. Idoia Landaluce eta Arantza Chacón, SEADen Lagunen Elkartea Araba. Ainhoa Oceja eta Eva Silván, Save the Children. Itziar Marquínez eta Miryam Berganza, medicusmundi álava/araba. Luis Royero, Manuel Iradier Elkarte Afrikanista. Ananda Abaigar, Adsis Fundazioa. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Estíbaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI).

Ekainera arte Giza mobilizazio eta kanpaina eta Eragin politikoko lantaldeek independenteki funtzionatu dute. Azkenean, ordea, bat egin dute Eragin soziala eta politikoko taldean, pentsatu zutelako lan eraginkorragoa eta koordinazio hobea lortzen zirela horrela.

### Bizkaia

#### Eragin politikoa

Alicia Alemán, ALBOAN. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Laura Iruretagoyena, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Silvia Felipe, mundubat. Jaime Bernar, Zabalketa. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Amaia Iguarán, Ayuda Mas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Jaione San Sebastián, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Mónica Hernando, Unesco Etxea. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Txema Cámara, Baltistán Fundazioa.



* 2012an amaitu da Koordinakundea berregituratzeko prozesua, zeinak urtean zehar aldaketak eragin baititu lantaldeetan eta talde teknikoan.



### Giza mobilizazioa eta kanpainak

María Lezáun, ALBOAN. Raquel Calvo, Bateginez. Paciencia Okon, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Sandra Fernández, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Sofía Marroquín, Intermón Oxfam. Teresa Reyzabal, Munduko Medikuak. Maite Ezquerro, Mugarik Gabe. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Joana López de Guereñu, medicusmundi bizkaia. Gloria Mora, Egoaizia.

### Generoa

Amaia Iguarán, Ayuda Mas. Beatriz de Lucas, mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia. María Bravo, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Marian Sanz, medicusmundi bizkaia.

## Gipuzkoa

### Eragin politikoa

Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Fernando Vaquerizo, mundubat. Eduardo Sánchez, Gizarte Fundazioa. Aitor Moreno, PROSALUS.

### Giza mobilizazioa eta kanpainak

Ane García, Behar Bidasoa. Maider Gorriti eta Raquel Fernández, Cáritas Gipuzkoa. Ana Mokoroa, Elan Euskadi. Arantza Garbizu, medicusmundi gipuzkoa. Koté Urbieta, Mugen Gainetik. Laura Laborra, PROCLADE YANAPAY. Josean Etxeberria, PROSALUS. Mariví Danboriena, Intered Euskal Herria.

Gipuzkoan dauden Zero Pobrezia 5 plataformetan parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

Mundu zabala, errealitate anitz ekimenaren antolaketan honako hauek parte hartu dute ere: Aloña Braceras, ALBOAN; Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak; Ainitze Zabala, Intered Euskal Herria; Kepa Torrijos, Bakea eta Elkartasuna Euskadi; Idoia Azpilicueta, PROYDE-PROEGA; Nerea Agirre, Rokpa Euskadi; Isabel Portillo, SODEPAZ Euskadi; Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan; Patricia Ponce, Haurralde Fundazioa; Manolo García, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI); Lourdes Guruzeta, FISC-Fundación Internacional de Solidaridad Compañía de María; Jorge Correa, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional; eta Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa.

# Erakundeetan partaidetza

### Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Eva Silván, Save the Children. Mikel Gantxegi, Mundukide. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. José Ignacio Eguizabal, ALBOAN. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional. María Viadero, Mugarik Gabe.

### Bilboko Lankidetzako Batzordea

María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Amaia Iguarán, Ayuda Mas. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY.

### Vitoria-Gasteizko Garapen Lankidetzarako Batzordea

Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI).

### Donostiako Udalako Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzako Kontseilua

Fernando Vaquerizo, mundubat.

# Talde teknikoa

Abuztura arte pertsona hauek osatu dute talde hau:

Natxo Ribechini, Idazkaritza teknikoaren Zuzendaritza. Aurora Hermosilla eta Itziar Lecanda, Arabako Idazkaritza teknikoa. Usune Zuazo, Bizkaiko Idazkaritza teknikoa Erika Erkizia eta Irene Molero, Gipuzkoako Idazkaritza teknikoa. Natalia Rodríguez, Eragin politikoko arduraduna. Idoia Aldama, Giza mobilizazioa eta kanpainak arduraduna. Silvia de Gregorio, Genero arduraduna. Jon González, Komunikazio arduraduna.

Irailatik aurrera talde tekniko berria pertsona hauek osatzen dute:

Idoia Aldama, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoa. Irene Molero, Sareak. Natalia Rodríguez, Eragin soziala eta politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa.



## GGKEak

Acción Verapaz Euskadi
Acnur Euskal Batzordea
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Amigos del Tercer Mundo
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetza Batzarra
Bateginez
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutiko Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Compartir
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskadiko Elkarbidea
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
FISC Cooperación y Desarrollo
FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia
FUNDESO Garapen Iraunkorreko Fundazioa
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Intermón Oxfam
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Izan Elkartea
Kainabera
Leonekin
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
medicusmundi álava/araba
medicusmundi bizkaia
medicusmundi gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugarik Gabeko Hezkuntza
Mugen Gainetik
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikuak
Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
Oskar Romero Solidaritza
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskalherria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi
SOLIVE Solidaridad Vedruna
SOTERMUN
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
Zabalketa
Zubiak Eginez

## Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...





# 5. Kontu argiak

| SARRERAK 2012 | BURUTUA (€) | % |
|---|---|---|
| Kuotak | 37.503 | 10 |
| Eusko Jaurlaritza | 201.000 | 52 |
| Arabako Foru Aldundia | 15.000 | 4 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 34.000 | 9 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 30.000 | 8 |
| Bilboko Udala | 22.000 | 6 |
| Donostiako Udala | 31.000 | 8 |
| Jarduerengatik sarrerak | 12.146 | 3 |
| Aparteko sarrerak | 5.420 | 1 |
| **Guztizkoa** | **388.069** | **100** |

| GASTUAK 2012 | BURUTUA (€) | % |
|---|---|---|
| Bulegoko materiala | 7.195 | 2 |
| Soldatak | 334.553 | 80 |
| Bidaiak | 11.696 | 3 |
| Kanpo zerbitzuak | 36.637 | 9 |
| Funtzionamendua | 28.416 | 7 |
| **Guztizkoa** | **418.497** | **100** |

| EMAITZA | -30.428* |
|---|---|

* Talde teknikoan egindako berrantolaketaren ondorioz suertatutako kalte-ordainketek defizit hau gauzatu dute bereziki.



EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA de ONGD EUSKADI


**Araba**

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Vitoria-Gasteiz**

Tel. 945 280 745

araba@ongdeuskadi.org

**Bizkaia**

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3.
48005 **Bilbo**

Tel. 944 150 300

bizkaia@ongdeuskadi.org

**Gipuzkoa**

Iparragirre 8, behea.
20001 **Donostia**

Tel. 943 463 526

gipuzkoa@ongdeuskadi.org


**www.ongdeuskadi.org**


Laguntzailea

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO